



COVID-19-K ERAGINDAKO OSASUN KRISIA KUDEATZEKO ALARMA-EGOERA EZARTZEN DUEN ERREGE-DEKRETUAREN ANALISIA

Estatuak zenbait neurri hartu ditu Covid-19aren zabalkuntzak ekarri duen osasun krisiari erantzuteko, beraien artean Gobernuak pasa den martxoaren 14an onartu zuen [463/2020 Errege-Dekretua](#) da garrantzitsua, zalantzarik gabe. Nahiz eta orokorrean tresna egokitzat hartua izan den, ez dira falta izan zenbait kritika, autonomia erkidegoen eskuduntzak inbaditzen omen dituelako. Zenbait adituk, hala nola, [Xabier Arbós Marín](#), [Tomás de la Quadra Salcedo](#) edo Euskal Herriko Federalistak Elkartearen sortzaile [Alberto López Basagurenek](#), sakonki aztertu dute testua eta publikoki adierazi dute deskalifikazio horrek ez duela inolako zentzurik.

EUSKAL HERRIKO FEDERALISTAK ELKARTEAREN WEBGUNEA

Euskal Herriko Federalistak Elkartearen [webgunea](#) poliki-poliki atal berriez osatzen ari da, betiere Elkartearen proposamenak eta bazkideentzat interesgarriak izan daitezkeen beste elementu batzuk hobeto helarazteko bazkide guztiei eta, bide batez, pentsamendu federalista hedatuz joateko. Hobekuntza horien artean azpimarratzekoak dira [audio](#) edo [bideo](#) formatuan jasotako zenbait mintzaldi, Elkarteak berak antolatutako ekitaldietan edota gaia interesgarria izan daitezkeen beste batzuetan.

Halaber, [web barne-espazio bat](#) sortu da zenbait gairi buruz eztabaidatzeko. Oso modu errazean antolatu da, testu batzuk jarriz eta ekarpenak egiteko aukera emanez, barneko moderatzaile batek arautua. Pasa den urteko amaieran egindako proben ondoren, [esteka](#) honen bidez jakin dezakezue nola erabili. Bazkideek Euskal Herriko Federalistak Elkartearen analisi eta ekarpenetan parte-hartze handiagoa izan dezaten bide berri bat da, osasun-krisiak eragindako geldialdi honetan ederki probestu ahal duguna.

URTEKO KUOTAREN KOBRANTZA

Une hauetan, Elkarteak dagoeneko 2020 urteari dagozkion 160 kuota jaso ditu. Horien artean 153 banku-helbideaz egin dira eta gainerakoak Euskal Herriko Federalistak Elkartearen kontuan zuzenean sartuak izan dira.

Oraindik urteko kuota (murriztua 10 euro/ arrunta 50 euro/ laguntza-kuota 100 euro) ordaindu ez duenak zuzenean egin dezake Euskal Herriko Federalistak FIAREN duen kontuan (**IBAN: ES26 1550 0001 26 0007633126**), izen-deiturak adieraziz. Halaber, banku-helbideratzea egin nahi duenak bere asmoa azaldu behar du euskalfederalistak@gmail.com posta elektronikora idatziz. Hurrengo asteetan, Elkartearen harremanetan jarriko da, datu-akats bat dela medio, kuotaren kobrantza ezinezkoa gertatu zaigun pertsonekin.

ETA BADA KIZU: KANPORA IRTETEKO BEHARRIK EZ BADUZU, ETXEAN ZINTZO-ZINTZO